



Red Ciudadana de Acogida / Hiritarron Harrera-Sarea

Ez itzazue kaleratu

Hortxe zeuden. Ez genituen ikusten. Ez genituen ikusi nahi. Eta ehunka dira.

Pandemia honek agerian utzi du **ikusezin** egon ohi den **errealitate bat**. **Etixerik gabe eta egoera ahulean dauden pertsonak behartuta daude kalean bizitzera, eraikin abandonatuetan edo laguntza publikoren bat duten geletan.**

Administrazioek, hitzaldiak hitzaldi, ez dituzte hori ekiditeko aski baliabide dituzten politikak.

Pandemiak urgentziarako baliabideak erabiltzera behartu ditu. Galdera: iraugipen-data al dute? Kalera botako al dituzte alarma-egoera amaitutakoan? Zuzen ote daude zera diotenenk, kezka bakarra horiek kaleetatik kentzea dela, bestean osasuna bermatzeko?

Ez dugu inor atzean utziko. Pedro Sánchez. 2020/03/18

Gure konpromisoa, betiere, inor atzean ez uztea da. Iñigo Urkullu. 2020/03/27

Lanean jarraitu inor atzean gera ez dadin. Markel Olano. 2019/04/08

Goiak Donostia oparoa hitzematen du, inor bazterrean utziko ez duena. 2019/06/16

Ez dezagun inor atzean utzi. Emandako hitza betetzeko unea da.

Dagokien instituzioei eskatzen diegu, udalei, Aldundiari, Jaurlaritzari, arren ekin diezaiotela gaur bertan **biharamunerako beharko diren baliabideak programatzeari.**

Ekipamendu masifikatu gabeak behar dira, **kudeatzeko moduko pertsona kopuru batentzat, intimitaterako guneak** dituztenak, ezaugarri jakin batzuk kontuan izango dituztenak **seme-alaben familientzat, emakumeentzat... Herri- eta hiriguneetatik ez urrun,** hezkuntza-, lan-, aisialdi-jarduera ohikoenak burutu ahal izateko... **Elikatze**-beharrak aseko dituztenak. **Behar diren profesionalen** arreta izango dutenak. Gaur egungo formatua, urgentziarako harrerarako, aterpetxe publikoak, horren adibide dira.

Behar adina **indartu beharra dago profesional taldeak eta gizarte-zerbitzuak,** zeregin horiei aurre egiteko eta pertsona erabiltzaileei aurrera egiten laguntzeko.

Jantoki Sozial Publikoak behar dira. Bai gizatalde horrentzat, eta bai egoera ahulean dagoen edonorentzat. Zeregin hori ezin da utzi elkartasunaren edo karitatearen bizkar.

Eskakizun gutxieneko horiek inoiz baino beharrezkoagoak dira pandemiaren ondoren datorren panorama kontuan izanik. Populazio-sail zaurgarriek dute arriskurik handiena ondorioak pairatzeko. **Mobiliza gaitezen hori ekiditeko.**

Dei egin diezaiegun eskakizun hauen alde pertsona horiek kaleratzea ekidin nahi duten gizarte erakunde guztiei.

Red Ciudadana de Acogida de Donostia / Donostiako Hiritarren Harrera Sarea

Eskakizun hauen alde daude: prensa.gipuzkoa@medicushmani.es 943404740 / 688869653

Ekarpenak: ES44 2095 5013 70 9119577666